
Euskararen normalizaziorako konpromiso politikoa

Beheko sinatzaileen aldarrikapena
Bai euskarari kanpainaren baitan

1998ko abenduak 21

AB

Batzarre

CDN

EA

EAJ-PNV

HB

ICV

IU (EAE)

IU (Nafarroa)

Zutik

Euskararen normalizaziorako

konpromiso politikoa


Behean sinatzen duten alderdi politikoek aldarrikapena Bai euskarari kanpainaren inguruan

Sarrera

Euskarak, historian zehar, azken mendeotan bereziki, faktore eta arrazoi askorengatik izan duen bazterte- eta galera-prozesua kontuan harturik, eta Euskal Herria hiru egitura politikotan zatitua egoteagatik gure hizkuntzaren ofizialtasunak muga handiak dituela ikusirik; eta azkenik normalkuntza-prozesuan emandako pausoak zenbait lurralde eta sailetan garrantzitsuak izanik ere, oraindik erabat lortu ez den gizarteko eragile sozial eta politiko guztien inplikazioa eta protagonismoa ezinbestekoa delarik, honako akordio honen sinatzaile garen alderdiok hau aldarrikatzen eta hitz ematen dugu:

Sinatzaileen konpromisoak

- Euskararen normalkuntza-prozesuak behar dituen neurri politiko eta instituzionalak hartzera konprometitzen gara.
 - Euskara ofiziala ez den tokietan estatus hori lortzeko jokabideak hartuko ditugu.
 - Kudeatzen ditugun instituzioetan —gobernu, diputazio zein udaletan— sailarteko hizkuntz politika egingo dugu euskararen aldeko neurriak departamendu guztietara hedatuz, eta kudeatzen ez ditugunetan bide beretik urratsak egiten ahaleginduko gara. Halaber, Euskal Herri osoko instituzio eta erakundeen arteko lankidetzak bultzatuko dugu euskara sendotu eta berreskuratzeko.
 - Behar diren bitarteko administratibo, juridiko eta, bereziki, ekonomikoak ezarriko ditugu. Era berean, gaur eguneko subentzio-politikaren kopuruak era funtsezkoan aldatu eta laguntza-lerro berriak sortuko ditugu, laguntzak berak ere razionalizatuz aldi berean.
 - Eusko Jaurlaritzak onartu berria duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia, Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko eraturako egitasmoak bultzatzeko konpromisoa zein Iparraldean onarpen zabala bildu duen Antolakuntza Eskemaren hizkuntz atala lehenbailehen bideratzeko ahaleginak egingen ditugu. Halaber, Kontseiluak eragile sozialekin batera burutuko duen Plan Estrategikoa ere, ontzat eman ondoren, bultzatuko dugu. Era berean, esparru guztietan Plan Nagusiak eratu eta bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu.
-



6. Bakoitzak geure alderdiaren barneko eta kanpoko hizkuntz erabilpenean normalkuntza-prozesu etengabea abian jartzeko konpromisoa hartzen dugu.

7. Eta azkenik, akordio honen jarraipenerako Batzorde Berezia eratuko da alderdi bakoitzeko eta Kontseiluko ordezkariak osatua.

1998ko abenduak 21